

## artikulu nabarmenak artículos destacados



### urria/octubre



GARIGARDOBIL, Maite, Jone ALIRI eta Vanesa MARTÍNEZ-VALDERREY. [Justificación de la violencia durante la adolescencia: diferencias en función de variables sociodemográficas](#). *European Journal of Education and Psychology*. Almería: CENFINT, 2013, 6. libk, 2. zk., 83-93. or.

Ikerketa honek aldagai soziodemografikoen indarkeriaren justifikazioan eraginik daukaten du aztergai. Emaitzek horrela diote: sexuak, adinak, maila sozioekonomikoak eta kulturalak, eta ikastetxearen zer-nolakoak badute eraginik. Nerabetan mutilek neskek baino justifikazio handiagoa adierazi dute, parekoen arteko indarkerian, etxeetan zein gutxiengoaren artekoan. Adinak aurrera egin ahala, atxikimendua gutxitu egiten da azkeneko bien kasuan; ez, ostera, lehenengoaren kasuan. Zenbat eta maila sozioekonomiko txikiagoa, orduan eta justifikazio handiagoa. Ikastetxeak gogoan, publikoetako ikasleek pribatu/itunpekoetakoek baino justifikazio nabariagoa adierazi dute. Esku-hartze soziala eta emozionala bideratuko duten programak abian jartzeko beharra agertu da, indarkeria justifikatzen dituzten eta gazteen arteko jokabide bortitz eta oldarkorrak elikatzen dituzten usteak desagerrarazteko.



SENDÍN GUTIÉRREZ, José Carlos, Carmen GAONA PISONERO eta Antonio GARCÍA JIMÉNEZ.

[Nuevos medios: usos comunicativos de los adolescentes. Perspectivas desde los nativos digitales](#). *Estudios sobre el mensaje periodístico*. Madrid: UCM, 2014, 20. libk, 1. zk., 265-280. or.

Gazteek eurek kontaktutakoei jarraiki, ikerketa honek nerabeei internet darabiltenean dituzten aztura eta dinamikak argitu nahi ditu. Emaitzek, besteak beste, honen berri eman digute: adinari begira lehenago sartzen dira, erabilera-denbora handitu da eta sare sozialetan dabilta batez ere, hitz egiteko eta mezuak bidaltzeko programak erabiltzen dituzte, musika behera kargatzen dute, musika entzuten dute, eskolako lanak bertan egiten dituzte, telesailak ikusten dituzte, lagunekin on line eta off line egiten dute bat, eskegitzen dituzten argazkiak komunikatzeko erabiltzen dituzte, urrutiko senideekin harremanak dituzte, baita pertsona ezezagunekin ere. Horietako jarduera batzuek badute arriskurako bide bat, hezkuntza sistemak eta familiak nerabeei eman nahi dieten itzalarekin bat ez datorrena.



MARCHETA PÉREZ, Aitor. [Consecuencias del bullying homofóbico retrospectivo y los factores psicosociales en el bienestar psicológico de sujetos LGB](#). *Revista de Investigación Educativa*. Murtzia: ICE, UM, 2014, 32. libk, 1. zk., 255-271 or.

Hautzaro eta nerabezaroen euren joera afektibo-sexualagatik jazarpenak jasan zituzten gay, lesbiana eta bisexualek gerora ongizate psikologikoan ondorio kaltegarriak izan duten aztertzen du ikerketa honek. Emaitzek azaldutakoaren arabera badu ondorioz depresio, antsietate, eta norberaren estimuaren mailan; dena den, sare sozialak eta norberak eta ingurukoek bultzatutako onarpenera eragin gaitzoei aurre egiteko bide dira.

PERTSONA  
HELBURU

COMPROMISO CON  
LAS PERSONAS

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA ETA  
KULTURA SAIA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA